



Iraunkortasun-
memoria
2003-2004

Aurkibidea

2003-2004ko iraunkortasun-memoria

1 Memoria honetaz	04. or	5 Aurrerapen-urtea. Aberastasuna eta ongizatea sortzen	40.or
2 Lehendakariaren gutuna	06. or	5.1. Kontsumitzaileak	
3 Honelakoa da gure erakundea	08. or	5.2. Ekonomi eta kultur garapeneko eragilea	
3.1. Guztien eta guztientzako erakundea		5.3. Pertsonak	
3.2. Gure alderdi interesdunak		5.4. Etorkizuneko belaunaldiak: ingurumena	
3.3. Sozietate-egitura		5.5. Gizartea	
3.4. Negozio-alorra eta ikur-alorra		6 Eranskinak	81.or
4 Gauzak egiteko beste modu bat	30.or	I. eranskina GRIren baldintzekiko korrelazio-taula	
4.1 Antolamendu funtzionala		II. eranskina AENORen balioztatze-txostena	
4.2. Barne-konpromisoen kudeaketa		III.eranskina Munduko Itunaren 2004ko Aurrerapen Txostena	
4.3 Kanpo-konpromisoen kudeaketa		IV. eranskina 2015 milurtekoko gizarte-ekintza eta helburuak	

1

Memoria
honetaz

Memoria honetaz

Gure iraunkortasun-memoriaren egunerapen honen bidez, 2002an hasitako ahaleginarekin jarraitzen dugu. Memoriaren bidez, oinarritzko jardueren berri ematen dugu, Eroskik 2003-2004 denboraldian ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arloetan izan duen portaeraren adierazle nagusiak jakinarazteaz gain.

Horretarako, eta aurreneko urrats gisa, gure erakunde-eredua deskribatuko dugu, irakurleak nola jarduten dugun hobeto ulertu eta, azken batean, lortutako emaitzak balioets ditzan, bai eta emaitzek alderdi interesdunen interesak asetzean izandako garrantzia ere.

Deskribapen horretan, fideltasun osoz azaldu nahi ditugu alderdi interesdun bakoitzarekin hartutako konpromisoak, bai eta konpromiso horiek nola bete ditugun ere. Halaber, etengabeko hobekuntzako politikak ezarriz balioa etengabe sortzea lortu dugula ere azalduko dugu.

Horrez gain, eta gure komunikazioen bereizgarri den gardentasunari jarraituta, zuen esanetara jartzen gara, egin nahi duzuen edozein kontsulta argitzeko, zabaltzeko, azaltzeko edo erantzuteko. Era berean, zuen eskura jartzen dugu AENOREk emandako balioztatze-txostena.

Harremanetarako: Eroski Fundazioa
Tel.: 94 621 16 99. info@fundacioneroski.es

Txosten hau Eroski Taldeak 2003an eta 2004an gure planetaren garapen iraunkorraren alde egindako ekarpenaren deskribapen orekatua da. Iraunkortasun-memoriak egiteko Global Reporting Initiative delakoak 2002an egindako gidaren gomendioei jarraituta eginda dago memoria hau.

Informazio gehiago izateko, sartu www.eroski.es web orrian.

Dokumentu honetan sartu gabeko informazioa I. eranskinean dago behar bezala azalduta. Informazio horretan, gure jardueraren izaerari ez dagozkion adierazleak azaltzen dira, edo memoria hau egiten zen bitartean aintzat hartzeko moduan izan ez diren adierazleak. Hurrengo memorietan sartuko ditugula hitzematzen dugu.